

LABek Guardianeko Laudioko lan zentroko labea itzaltzeko erabakiaren aurrean dituen tresna guztiak martxan jarri ditu hau geldiarazteko

Guardianek labea itzaltzea aurreratzeko asmoak eta erabakia ikusirik, LABek Lan-ikuskaritzan salaketa jarri, eta Osalanen eta Lan-delegaritzan ere eskaerak martxan jarri ditu. Horrekin batera mobilizazioei ekingo zaie eta urtarrilaren 30ean greba mugagabea deituta dago.

Azkenengo egunetan Guardianen zuzendaritzatik egindako mugimenduen ostean eta Laudioko lan zentroko labearen itzaltzea bihar urtarrilaren 29ra aurreratzea jakin zenetik, honi aurre egiteko hainbat tresna jarri dituzte martxan LABek eta Guardianeko enpresa-batzordeak.

Guardian enpresa enpresa-batzordearen greba deialdiari aurreratu egin zaio eta otsailaren 3rako programatuta zeukan labearen itzaltzea urtarrilaren 29ra aurreratu du. Beraz 30erako deituta dagoen grebak ez lioke neurri honi zuzenean eragingo.

Labea Guardianek aurrikusi duen moduan itzaltzen bada, Laudioko lan zentroaren etorkizuna kolokan geratuko litzakete, atzera bueltarik ez duen neurri bat izan daitekeelako. Honen aurrean bai enpresa-batzordeak eta baita LABek ere beren esku dituzten tresna guztiak martxan jarri dituzte: mobilizazioak, ekintza sindikala eta juridikoa.

Horien artean lan-ikuskaritzan salaketa aurkeztu du LABek, baita Osalanen eta Lan-Delegaritzan eskaera bana. Eskaera hauetan, labearen itzaltzea gelditzeko hainbat arrazoi daudela salatzen du LABek eta bertan esku-har dezaten eskatzen die. Hiru entitateei urgentziaz aritu eta haien artean koordinatzeko eskatzen die LABek, baita Industria Sailaren kolaborazioa ere.

LABen ustez hainbat arrazoi daude labearen itzaltzea gelditzeko, baina horien artean pisu handiko bi arrazoi daudela trasladatzen du. Alde batetik segurtasun irizpideak daude, ez baita segurua ez langile, ez instalazio ezta agian herri eta ingurumenaretzat ere, presaka eta korrika horrelako labe eta instalazio bat amatatzea, inolako aurreikuspen eta protokolo argirik gabe. Eta bigarrenik, langileen oinarrizko eskubideak errespetatzen ez direla uste du LABek, ez baitira negoziatzeko oinarrizko irizpideak eta eskubideak errespetatzen. Arrazoi berdin hauei jarraiki, ikuskaritzara eta EAEko Auzitegi Nagusira ere jo du enpresa-batzordeak.

Honekin batera, Guardianek labea era arduragabe eta bidegabean itzali eta enpresa ixtera kondenatu nahi duela ikusirik, egingo diren mobilizazio eta ekimen ezberdinetan parte hartzea deitzen du LABek. Bihar, urtarrilak 29an, goizean 7:00etatik 10:00etara Guardianeko sarrera aurrean labea gelditu ez dadin egingo den kontzentziora eta urtarrilaren 31n 18:00etan egingo den mobilizaziora parte hartzea deitzen du LABek.

Mobilizazio, ekintza sindikal eta juridiko guzti hauekin labearen eta enpresaren etorkizuna bermatu ahal izatea espero da, eta honekin batera beharrezkoak diren ekimenak martxan jartzen aztertzen jarraituko du LABek.

Borrokak bizirik dirau! Guardiaeko labea ez itxi! Guardian ez itxi!